

‘GARAPEN IRAUNKORRA’ EUSKARAZ

Euskaltzaindiko azken bileran, Euskal Herriko erakunde batek aurretik egindako zalantza argitzeko, ‘naturari kalte larriak egin gabe mantentzeko garapena’ euskaraz egokiro nola esan daitekeen aztertu eta eztabaidatu zen. Horretarako, bi euskaltzainek prestatutako txostena aurkeztu zen eta esaera horrek, ingelesez *sustainable development* (eta hortik gaztelaniazko *desarrollo sostenible*), frantsesez *développement durable* eta alemanez *tragbare Entwicklung* eta *umweltfreundliche Entwicklung* dituen aldakiak eta orain arteko euskal moldapenak (*garapen eutsigarri*, *garapen jasangarri*, *garapen iraunkor*..) banan-banan ikusi eta gero, horrekin adierazi nahi den kontzeptuarekin eta gure hizkuntzarekin egokienik dirudien itzulpena *Garapen iraunkorra* dela erabaki zuen aho batez, *iraun* aditzetik sorturiko izenondo eratorri ezagun eta ulerterrazarekin sortua, bide batez, frantses ereduari hurbilduz.

Beraz, Euskaltzaindiaren aburuz, *Garapen iraunkorra* da ekologiaren eraginez gero eta gehiago aipatzen den kontzeptu berri horren euskal itzulpen hobetsia.

Donostia, 2004-I-30

‘DESARROLLO SOSTENIBLE’ EN EUSKERA

En la última sesión de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca, a petición de una institución del País, se estudió y discutió la forma más adecuada para traducir al euskara el concepto de ‘desarrollo que puede mantenerse sin ocasionar daños graves o irreparables a la naturaleza’. Para ello se presentó un informe elaborado por dos académicos, y tras considerar detenidamente las distintas versiones al inglés (*sustainable development*, de donde proviene la traducción española *desarrollo sostenible*), al francés (*développement durable*) y al alemán (*tragbare Entwicklung* y *umweltfreundliche Entwicklung*), teniendo en cuenta a la vez las diversas adaptaciones vascas que han aparecido durante estos últimos años (*garapen eutsigarri*, *garapen jasangarri*, *garapen iraunkor...*) se consideró que la traducción que mejor se ajusta tanto al concepto a expresar, como a la idiosincrasia de nuestro idioma, es *Garapen iraunkorra*, con un adjetivo derivado del verbo *iraun* ‘durar, continuar, permanecer’ conocido y fácil de comprender, que acerca la traducción al modelo francés.

Así pues, a juicio de Euskaltzaindia la traducción más adecuada para este moderno concepto de desarrollo impulsado por la actual sensibilidad ecologista es *Garapen iraunkorra*.

Donostia/San Sebastián, 30-I-2004